



AIARAKO UDALAK 2024ko UZTAILAREN 18an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Prudencio Otegui Echevarría jn.

ZINEGOTZIAK

Karmele Población Martínez and.
Marian Mendiguren Mendibil and.
Iratxe Parro Uzquiano and.
Izaskun García Aresti and.
Gentza Alamillo Udaeta jn.
Iñigo Pinedo Vadillo jn.
Montse Angulo Solloa and.
Irantzu Apodaca Sánchez and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita lauko uztailaren hemezortzian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Prudencio Otegui Echevarría alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Vanessa Domínguez Casal andrea da idazkaria.

EZ DIRA BERTARATU

Unai Campo Arenaza jn.
Susana Martín Benavides and.

IDAZKARIA

Vanessa Domínguez Casal and.

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, hala badagokio, 2023ko kontu orokorra.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako Udalbatzako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2023. urteko kontu orokorra.

IKUSI DA.- 2024ko uztailaren 9ko Ogasuna, Kontuen Batzorde Berezia eta Administrazio Batzarrak Informazio Batzordearen irizpena.



AINTZAT HARTU DA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 116. artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 62. artikuluan xedatutakoa.

Udalbatza Osoak, bertaratutako zinegotzien aho bateko onespenerekin (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek), honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- 2023 ekitaldiari dagokion Aiarako Udaleko kontu orokorraren aldeko txostena egitea.

BIGARRENA.- Kontu orokorra jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean, iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita, epe horretan interesdunek egokitzat iritzitako erreklamazioak, eragozpenak eta oharra aurkez ditzaten.

2.- Onestea, bidezkoa bada, kredituen judizioz kanpoko 3/2024 aintzatespen-espeditentea.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko uztailaren 9ko Ogasuna, Kontuen Batzorde Berezia eta Administrazio Batzarrak Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako Udalbatzako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Kredituen judizioz kanpoko 3/2024 aintzatespen-espeditentea.

IKUSI DA.- Idazkaritza Kontu-hartzaitzaren 2024ko uztailaren 2ko txostena.

AINTZAT HARTU DA.- 2024ko uztailaren 9ko Ogasuna, Kontuen Batzorde Berezia eta Administrazio Batzarrak Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 176. artikulua eta Toki-ogasanak arautzen dituen 500/1990 Errege Dekretuaren 16. artikulua.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotziek aho batez adostuz, **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Kredituen judizioz kanpoko 3/2024 aintzatespen-espeditentea onestea, ondoren zerrendatutako datuen arabera, 2024 ekitaldi honen aurrekoan hartutako betebeharra izateagatik, ordaintzea baimentzeko, Udalaren aldetik aberaste bidegabea saihesteko.

- 2022ko irailaren 30eko 1220022533 zenbakiko faktura, 64,58 euroko zenbatekoko (BEZa barne).



- 2023ko urtarrilaren 31ko 1230000554 zenbakiko faktura, 14,75 euroko zenbatekoko (BEZa barne).
- 2023ko martxoaren 31ko 1230011981 zenbakiko faktura, 44,87 euroko zenbatekoko (BEZa barne).
- 2023ko ekainaren 30eko 1230029065 zenbakiko faktura, 46,91 euroko zenbatekoko (BEZa barne).
- 2023ko urriaren 31ko 1230052009 zenbakiko faktura, 46,91 euroko zenbatekoko (BEZa barne).

SERVIRREINER SL enpresaren izeneko faktura horiek 2024 ekitaldirako luzatutako 2023ko aurrekontuaren 920.211.000 partidaren kargura ordainduko dira.

3.- Euskararen erabilera normalizatzeko planari buruzko irizpena.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako Udalbatzako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua; horren arabera, euskal administrazio publikoetako hizkuntza-normalizazio prozesua erakunde bakoitzaren euskararen erabilera normalizatzeko planak onetsi eta egikaritu bidez egingo da, eta planek 5 urteko iraupena izango dute.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak 2018-2022 aldirako zuen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.

AINZAT HARTU DA.- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan berria egiteko beharra.

IKUSI DA.- Elhuyarrek Aiarako Udalarentzat egindako 2023-2027 aldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.

IKUSI DA.- Kultura, Kirolak, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria Informazio Batzordeak 2024ko ekainaren 9an emandako aldeko irizpena.

Aurreko guztiarekin bat etorritz, Udalbatzak, bertaratutako zinegotziek aho batez adostuta, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Onestea Aiarako Udalarentzat egindako 2023-2027 aldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.



4.- Udalbatzaren erabaki-proposamena, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin 2024 ekitaldirako udal-langileen eta alkatearen ordainsariak 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko % 2 igotzeko.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako Udalbatzako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- 2024ko ekainaren 27an onetsi zela Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurriak luzatzen dituen eta esparru fiskalean, energetikoan eta sozialean presazko neurriak hartzen dituen ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretua.

IKUSI DA.- Errege Lege Dekretu horren 6. artikulua (I. titulua, II. kapitulua), honako hau xedatzen duena:

“I. titulua. Zerga-neurriak, ordainsariak eta lurraldeko finantzaketa-sistemei buruzkoak

II. kapitulua. Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien neurriak.

6. artikulua. Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien 2024. urterako igoera.

1. 2024. urtean, sektore publikoko zerbitzura dauden langileen ordainsariak gehienez % 2ko gehikuntza globala jaso ahalko dute, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, eta azken horietan 2023 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.2.2 artikuluan aurreikusitakotik eratorritako azken gehikuntzak egongo dira sartuta, alderatzeko bi aldeetarako homogeneotasunari dagokionez, bai benetako langileei dagokionez, bai horien antzinatasunari dagokionez. Ordainsari-gehikuntza horrek eragin ekonomikoa izango du 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.

2. Era berean, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, % 0,5eko ordainsari-gehikuntza gehigarri eta bateragarria aplikatuko da, hala badagokio, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin alderatuta, baldin eta 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPIHren aldakuntzak 2022., 2023. eta 2024. urteetako ordainsari-gehikuntza finko metatua gainditzen badu. Ondore horietarako, behin Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2024. urtearen KPIHren datuak argitaratuta, gehikuntza horren aplikazioa onetsiko da Ministroen Kontseiluaren erabaki bidez, eta hori BOEn, argitaratuko da”.

IKUSI DA.- Neurri hori, arauak berak adierazten duen bezala, “beharrezkoa da XXI. mendeko administrazio baterako 2022ko urriaren 19an sinatutako akordio-esparrua betetzeko; akordio horrek administrazio publikoen zerbitzura dauden langileentzako ordainsari-gehikuntzako urte anitzeko esparrua finkatu zuen, 2022. eta 2024. urteen arteko aldirako. Hala, akordioak urte horietarako soldataren gehikuntza finkoa ezarri zuen, gehi KPIHaren (Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatua) eta BPGd-aren (barne-produktu gordina) bilakaerari lotutako gehikuntzaren aparteko ehunekoak”.



IKUSI DA.- EUDELeK 2024ko ekainaren 27an eginiko gomendioa, 2024. urterako aipatutako ordainsari-igoerari buruzkoa.

Aurreko guztiarekin bat etorriz, Udalbatzak, bertaratutako zinegotziek aho batez adostuta, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- 2024ko urtarrilaren 1etik hasitako eraginarekin, udal-langileen ordainsariak handitzea, % 2ko gehikuntzarekin, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, eta azken horietan 2023 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.2.2 artikuluan aurreikusitakotik eratorritako azken gehikuntzak egongo dira sartuta, alderatzeko bi aldeetarako homogeneotasunari dagokionez, bai benetako langileei dagokionez, bai horien antzinasunari dagokionez.

BIGARRENA.- Era berean, 2024 ekitaldirako alkatetzaren ordainsariak handitzea, ehuneko berdinetan, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

HIRUGARRENA.- Adierazitako eta jaso gabeko igoerak aplikatzearen ondoriozko atzerakinak ordaintzea.

LAUGARRENA.- Erabakiaren berri ematea sindikatuko ordezkaritari, Kontu-hartzailetzari eta Udaleko Diruzaintzari.

BOSGARRENA.- Hartutako erabakiaren laburpena argitaratzea Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean.

5.- Jundizko ontzi arinen hondakinak sailkatu eta tratatzeko instalazioaren kudeaketa publikoari buruzko EH-Bilduk aurkeztutako mozioa (gai hau AFEren 82.3 artikuluan xedatutakoaren arabera sartu da; hortaz, eztabaidatu eta bozkatu aurretik osoko bilkura honetako gai-zerrendan gaia sartzea berresteko bilkurako erabakia hartu beharko da).

Karmele Población alkateorde andreak (EH Bildu) hartu du hitza, eta euskaraz adierazi du mozioa azaltzea gustatuko litzaiokeela, eztabaidatzea egokia den ala ez bozkatu aurretik; aldeztu aurretik baitaki Aiara Batuzek ez duela iritzirik emango.

Iratxe Parro zinegotzi andreak (Aiara Batuz) esku hartu du euskaraz adierazteko ez zekitelako EH Bildun horri buruzko zerbait adostu duten, eta haiek ez dutela denborarik izan talde politiko gisa barnean eztabaidatzeko.

Karmele Población alkateorde andreak (EH Bildu) hartu du hitza, ñabartzeko aurreko egunean EH Bilduren mozioaren zuzenketa erregistratu zela, EAJ-PNVk egina, baina ez zutela ikusi goiz horretara arte, Administrazio Orokorreko teknikariak adierazi dion arte, beranduegi zenean.

Euskaraz adierazi du proposamena dela EAJ-PNVk aurkeztutako mozioaren 1. eta 2. puntuak sartzea; izan ere, bakoitzean eskatzen dena oso desberdina da. Hortaz, EAJ-PNVk EH Bilduren mozioan aurkeztutako 1. eta 2. puntuak onetsi edo hartzea proposatu du.



Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) euskaraz ñabartu du EAJ-PNVk EH Bilduren mozioari egindako zuzenketaren erregistroa arratsaldeko ordu batak hamar gutxian egin zela. Karmele Población alkateorde andreak (EH Bildu) euskaraz erantzun dio ez duela zalantzan jartzen, baina haiei beranduago heldu zaie, Administrazio Orokorreko teknikariak beranduago bidali zielako, Udala dagoen moduan dagoelako: idazkari kontu-hartzailerik gabe eta baja askorekin; Administrazio Orokorreko teknikariak ez du denborarik izan lehenago bidaltzeko eta, ondorioz, haiek oso denbora gutxi izan dute aztertzeko.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) euskaraz adierazi du bere talde politikoak bere proposamena egin nahi duela.

Karmele Población alkateorde andreak (EH Bildu) euskaraz adierazi du, kasu horretan, EH Bilduk ere aurrera egin nahi duela bere proposamenarekin.

Iratxe Parro zinegotzi andreak (Aiara Batuz) hartu du hitza euskaraz adierazteko kudeatzeko orduan egon diren epeak ikusita, mozioak ez eztabaidatzea proposatu du, eta aurrerago eztabaidatzeko uztea.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du bere aldetik ez dagoela arazorik bi mozioak mahai gainean utzi eta talde politiko guztiek aztertzeko denbora izan ostean eztabaidatzeko.

Karmele Población alkateorde andreak (EH Bildu) ere adierazi du ados dagoela mozioak beranduago eztabaidatzeko uztearekin.

<p>Jundizko ontzi arinen hondakinak sailkatu eta tratatzeko instalazioaren kudeaketa publikoari buruzko mozioa.</p> <p>2012ko abuztuan, Jundizeko ontzi arinak Sailkatzeko Instalazioaren kudeaketa esleitu zitzaion FCC eta Yarrantuk osatutako Jundiz II ABEEari, 1,5 milioi euroren truke eta 10 urterako (beste bi urtez luzatzeko aukerarekin). Hau da, 2024an amaitzen da egungo esleipena.</p> <p>Urteak igaro ahala, agerian geratu da mota horretako ontzien sorrera urtetik urtera handitzen ari dela. Horrela, enpresa esleipendunaren fakturazioa bildutako ontzi kopuruaren arabera denez, enpresak lortutako etekinak esleipenean zehaztutakoa baino nabarmen handiagoak dira.</p>	<p>Moción sobre la gestión pública de la planta de clasificación y tratamiento de residuos de envases ligeros de Júndiz</p> <p>En agosto de 2012 se adjudicó la gestión de la Planta de Clasificación de Envases Ligeros de Jundiz a la UTE Jundiz II, formada por FCC y Yarritu, por 1,5 millones de euros y por 10 años (prorrogables por otros dos más). Es decir, este 2024 finaliza la actual adjudicación.</p> <p>Con el paso de los años se ha puesto de manifiesto que la generación de este tipo de envases aumenta año tras año. Así, dado que la facturación de la empresa adjudicataria depende del número de envases recogidos, los beneficios obtenidos por la empresa son sensiblemente superiores a los especificados en la adjudicación.</p>
--	---



Indarrean dagoen Arabako Hondakinen Planak berariaz jasotzen du ontzi eta plastiko kopurua murrizteko eta prebentzio neurriak hartzeko beharra, baina argi dago planean jasota dauden helburuak lortzetik oso urrun gaudela. Arabako Hiri Hondakinen Behatokiak argitaratutako datuen arabera, karakterizazioetako ehunekorik handiena ontzi arinek osatzen dute eta nahastutako hondakinen atalean aurkitzen den ontzien ehunekoak % 61 da; hau da, % 39 baino ez da biltzen gaika. Ildo horretan, garrantzitsua da ontziak berrerabiltzeko eta murrizteko programak ezartzea. Alderdi horiek lehentasunezkoak dira Europako hondakinen hierarkian, eta gaur egun ez dira lantzen instalazio honetan.

Azken ildo horretan, biltegitratze eta itzultze sistema integralak (SDDR) erakutsitako emaitza bikainak balioan jarri nahi ditugu. Balio ekonomiko bat lotzen zaio ontzi bakoitzari, kontsumitzaileak saltokietara itzul dezan sustatzeko, gaikako bilketa bultzatuz.

Beraz, 2030eko Arabako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean ezarritako helburuak lortzen aurrera egiteko eta Europako hondakinen hierarkiaren helburuekin bat egiteko neurriak hartu behar dira. Gainera, kudeaketa publikoak funtzionamendu hobea eta eraginkorragoa izateko aukera ematen du.

Horregatik, Aiarako EH Bilduko Udal Taldeak hurrengo mozioa aurkezten du hurrengo plenoan eztabaidatu eta onartzeko:

1. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio Jundizko ontzien hondakinak sailkatu eta kudeatzeko instalazioaren kudeaketa publikoa bultzatzeko eta, urtea

El vigente Plan de Residuos de Álava recoge expresamente la necesidad de reducir la cantidad de envases y plásticos y de adoptar medidas preventivas; pero es evidente que estamos muy lejos de alcanzar los objetivos. Según los datos publicados por el Observatorio de Residuos Urbanos de Álava, en las caracterizaciones el mayor porcentaje lo constituyen los envases ligeros y el porcentaje de envases que se encuentran en el apartado de residuos mezclados es del 61%; es decir, sólo se recoge selectivamente el 39%. En este sentido, es importante establecer programas de reutilización y reducción de envases. Estos aspectos son prioritarios en la jerarquía europea de residuos y actualmente no se trabajan en esta instalación.

Además, los resultados mostrados por el sistema integral de almacenamiento y retorno (SDDR) son significativos. Se vincula un valor económico a cada envase para fomentar que el consumidor lo devuelva a los comercios, favoreciendo así la recogida selectiva.

Por tanto, es necesario adoptar medidas para avanzar en la consecución de los objetivos establecidos en el Plan de Prevención y Gestión de Residuos Urbanos de Álava 2030 y alinearse con los objetivos de la jerarquía europea de residuos. Además, la gestión pública de esta planta, puede permitir un funcionamiento mejor y más eficiente.

Por ello, el Grupo Municipal de EH Bildu en el Ayuntamiento de Aiara presenta la siguiente moción para su debate y aprobación en el siguiente Pleno:

1. El Ayuntamiento de Aiara insta a la Diputación Foral de Álava a impulsar la gestión pública de la planta de clasificación y gestión de residuos de envases ligeros de Jundiz y a realizar,



<p>amaitu baino lehen, publikazio horri buruzko azterlan tekniko, juridiko eta ekonomikoa egiteko.</p> <p>2. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio neurriak har ditzala hondakinen Europako hierarkia betetzeko eta ontzien sorrera murrizteko; eta biltegitratze eta itzultze sistema integralaren plan pilotu bat ezartzeko ezaugarri trinkoagoak dituen eskualde batean eta sakabanatuagoa den beste batean.</p>	<p>antes de fin de año, un estudio técnico, jurídico y económico sobre dicha publicación.</p> <p>2. El Ayuntamiento de Aiara insta a la Diputación Foral de Álava a que adopte medidas para cumplir con la jerarquía europea de residuos y reducir la generación de envases mediante el desarrollo de un plan piloto de implantación de un sistema de depósito, devolución y retorno (SDDR) en dos Cuadrillas de Araba; una de características más compactas y otras con mayor dispersión.</p>
---	--



HONDAKINAK SAILKATZEKO PLANTAREN MOZIOAREN ZUZENKETA

1.-Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio Jundizko ontziak sailkatzeko planta kudeatzeko lizitazio berrian azter ditzala honako hauek ahalbidetzen dituzten balizko eransketak:

- ontzien hautaketa eta sailkapena hobetzea, hautatutako materiala gehiago balorizatzeko
- eraginkortasun energetiko handiagoa lortzea, autokontsumorako energia berriztagarrien azpiegiturak garatuz
- ingurumen-gela sustatzea, hondakinen sorreran prebentzioaren eta murrizketaren arloko sentsibilizazio- eta prestakuntza-prozesuak errazteko tresna gisa.

2.- Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio, lortutako esperientzia kontuan hartuta, azter dezala egungo lizitazioan dagoen hobaria kentzea, eta proposa ditzala hobekuntzak lan-segurtasuna eta zerbitzuaren kalitatea areagotzeko.

3.- Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die, hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko planekin bat etorritz, proiektu pilotu bat gara dezatela Arabako udalerrri batean, biltegitratzeko eta itzultzeko sistema integral bat (SDDR) ezartzeko, Euskadin oro har ezartzeko bideragarritasuna ebaluatu ahal izateko.



ENMIENDA A MOCIÓN PLANTA DE CLASIFICACIÓN DE RESIDUOS

1.-El Ayuntamiento de Ayala insta a la Diputación Foral de Álava a que en la nueva licitación para la gestión de la planta de clasificación de envases de Júndiz analice las posibles incorporaciones que permitan:

- lograr la mejora en la selección y clasificación de los envases para una mayor valorización del material seleccionado

- conseguir una mayor eficiencia energética desarrollando infraestructuras de energías renovables para su autoconsumo

- promover el impulso del aula ambiental como herramienta para facilitar los procesos de sensibilización y formación en materia de prevención y reducción en la generación de residuos.

2.- El Ayuntamiento de Ayala insta a la Diputación Foral de Araba a que, considerando la experiencia adquirida, estudie la eliminación de la bonificación existente en la actual licitación y proponga posibles mejoras para incrementar la seguridad laboral y calidad en la prestación del servicio.

3.- El Ayuntamiento de Ayala insta a la Diputación Foral de Araba y al Gobierno Vasco a que, alineados con sus planes de prevención y gestión de residuos, desarrollen un proyecto piloto en un municipio de Álava para la implantación de un sistema integral de almacenamiento y retorno (SDDR), que permita evaluar la viabilidad de su implantación generalizada en Euskadi.

6.- Alkatetzaren Dekretuen kontu ematea.
(2024/348 eta 2024/424 zenbakien bitarteko Alkatetzaren Dekretua erantsi da, biak barne).

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2024/348 eta 2024/424 bitarteko Alkatetzaren Dekretuak, bi horiek barne. Horien edukia, laburki, honako hau da:

Zk.	ALKATETZAREN DEKRETUA
2024-348	ALKATETZAREN DEKRETUA.- J.B.P. - Aparkatzeko txartela.
2024-349	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Landako OHZren zergadunen errolda onestea, 2024 ekitaldia.
2024-350	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Hogeitalau E. Elkartea. Lankidetzahitzarmenerako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.
2024-351	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Lekubatxe Bolatoki Kluba.- Lankidetzahitzarmeneko emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.
2024-352	BALIOGABETZEA, AKATS INFORMATIKOAGATIK.
2024-353	BALIOGABETZEA, AKATS INFORMATIKOAGATIK.
2024-354	BALIOGABETZEA, AKATS INFORMATIKOAGATIK.
2024-355	BALIOGABETZEA, AKATS INFORMATIKOAGATIK.
2024-356	ALKATETZAREN DEKRETUA.- VIUDA DE SAINZ SLri baimena ematea, 2. poligonoko 592 zenbakiko partzelan betetze-lanak egiteko.



2024-357	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkarte.- Talde psikopedagogikoaren eta bi urtekoen gelako laguntzailearen nominak ordaintzea, 2024ko ekaineko ordainsari gehigarria.
2024-358	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Alkateak kreditu gehigarriaren 5/2024 espedientea onestea.
2024-359	ALKATETZAREN DEKRETUA.- M.M. H. - Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.
2024-360	ALKATETZAREN DEKRETUA.- ONYX INGENIERÍAri adjudikazioa – Obra – Instalazioko Zuzendaritza zerbitzuen kontratu txikia. Etxaurrengo fotovoltaikoa
2024-361	ALKATETZAREN DEKRETUA.- ISS FACILITY SERVICES A.A. - Behin betiko bermea itzultzea.
2024-362	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Murgako Administrazio Batzarra.- Murgako Arakio auzoan kale-argiak instalatzeko obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.
2024-363	ALKATETZAREN DEKRETUA.- S.T.B. Aldi baterako lan-kontratuan borondatez baja hartzea.
2024-364	ALKATETZAREN DEKRETUA.- A.H.O. eta S.D.M.L.- Obrak amaitzeko luzapena ematea eta Izorian etxebizitza eraikitzeko obraren amaierako dokumentazioa aurkeztea.
2024-365	ALKATETZAREN DEKRETUA.- M.P.G.- Aurkeztutako alegazioak ezezte eta Erretes Lantenoko eraikinetan obrak eta erabilera klandestinoak erabiltzeagatik hasitako hirigintza leheneratzeko espedientea ebaztea.
2024-366	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Zerbitzuen langilearen eta peoiaren lan-poltsak aldatzea.
2024-367	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Idazkaritza kontu-hartzailatza lanpostua estaltzeko lan-poltsa sortzeko oinarriak onestea.
2024-368	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Elkarkidetzaren Pentsioak. 2024ko ekainaren faktura-likidazioaren ekarpena ordaintzea.
2024-369	ALKATETZAREN DEKRETUA.- S.T.B. Ekaineko nomina ordaintzea (likidazioa eta kitapena), alde baterako lan-kontratuaren borondatezko bajagatik, EEP.
2024-370	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Euskaraz Koop. Elkarte. AEK 2024ko korrika ordaintzea.
2024-371	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Madariako Administrazio Batzarra.- Madariako plaza txikia konpontzeko udalaren obra-lizentzia ematea.
2024-372	ALKATETZAREN DEKRETUA.- MC.G.G.- Arespalditzako etxebizitzan terraza konpontzeko udalaren obra-lizentzia ematea.
2024-373	ALKATETZAREN DEKRETUA.- I.L.O.- Zuhatzako Urkijo Jauregiaren monumentu-multzoko zerbitzu-etxea zati batean birgaitzeko obra egikaritzeko epea luzatzea.
2024-374	ALKATETZAREN DEKRETUA.- M.G.G.- Luiaondoko etxebizitzan lorategia zolatzeko udalaren obra-lizentzia ematea.
2024-375	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Hiriko OHZren erroldako zergadunak onestea, 2024 ekitaldia.
2024-376	ALKATETZAREN DEKRETUA.- ETORKI S. COOP.- Murgako industrialdean zerratokiaren jarduera garatzeko jarduera sailkatuaren lizentzia izapidetzeko prozedura hastea.
2024-377	ALKATETZAREN DEKRETUA.- L.A.G.- Kexaako partzelak urbanizatzeko obretako akatsak konpontzeko errekerimendua egitea, obrak jasotzeko akta egiteko.



2024-378	ALKATETZAREN DEKRETUA.- I.A.G.- Maroñoko etxebizitzako estalkia konpontzeko udalaren obra-lizentzia ematea.
2024-379	ALKATETZAREN DEKRETUA.- J.P.A.- Opellorako baserriko estalkia konpontzeko udalaren obra-lizentzia ezezte.
2024-380	ALKATETZAREN DEKRETUA.- B.E.Y.- Luiaondoko etxebizitzako balkoian olana jartzeko udalaren obra-lizentzia ematea.
2024-381	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Alkatearen eta langile funtzionarioen nominak ordaintzea onestea, 2024ko ekaina.
2024-382	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Udalerriko partidu politikoek ekarpen ekonomikoa onestea, 2024ko ekaina.
2024-383	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Udalkideen ekarpen ekonomikoa onestea, 2024ko ekaina.
2024-384	ALKATETZAREN DEKRETUA.- 2023/2024 aldirako EEPko langileen nominak ordaintzea onestea, 2024ko ekaina.
2024-385	ALKATETZAREN DEKRETUA.- KUDEA SERVICIOS POSITIVOS – Mugikortasunaren plataforma digitala kudeatzeko kontratu ireki sinplifikatua adjudikatzea.
2024-386	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Arabako Kontrataziorako Foru Zentroaren bidez posta-zerbitzuak kontratatze esparru-akordioari atxikitzea.
2024-387	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Menagaraiko Amor Misericordioso Ikastetxea.- Menagaraiko Mendieta auzoa 40 helbideko eraikinean komuna osorik berritzeko udalaren obra-lizentzia ematea.
2024-388	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Erbiko Administrazio Batzarra.- Erbin ura banatzeko sarea berritzeko obraren iraungitze-espeditzea hastea eta hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.
2024-389	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Administrazioaren lanpostuaren hautaketa-prozesuan onartu eta baztertutako pertsonen aldi baterako zerrenda onestea.
2024-390	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Alkateak kreditua gaitzeko espeditzea onestea, 2/2024.
2024-391	ALKATETZAREN DEKRETUA.- M.A.A.Y. - Aparkatzeko txartela.
2024-392	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Alkatearen eta langile funtzionarioen nominak ordaintzea onestea, 2024ko ekaineko aparteko ordainsaria.
2024-393	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Maroñoko Administrazio Batzarra.- Aurkeztutako informazio-eskaerari erantzunez, E.A.G.ri emandako udalaren obra-lizentzia helaraztea.
2024-394	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Vanessa Domínguez Casal – Idazkari kontu-hartzailea izendatzea, metaketagatik.
2024-395	ALKATETZAREN DEKRETUA.- MP.B.A.- Lantenon basurdeak ehizatze txakurrak hezitzeko zentroa ezartzeko Plan Berezia hasiera batean onesteko alegazioak aurkezteko epea luzatzea.
2024-396	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Solaria proiektuaren alegazioak bidaltzea.
2024-397	ALKATETZAREN DEKRETUA.- I.M.A.- Luiaondoko etxebizitza birgaitzeko udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.
2024-398	ALKATETZAREN DEKRETUA.- TGSS. Gizarte Segurantzaren kotizazioa ordaintzea onestea, 2024ko maiatza.
2024-399	ALKATETZAREN DEKRETUA.- 2024ko S. Isidro azokako azienda-lehiaketako abeltzainei eta epaileei ordaintzea onestea.
2024-400	ALKATETZAREN DEKRETUA.- EKAIN ABOKATUAK S.A. - Aholkularitza juridikorako kontratu txikia esleitzea.



2024-401	ALKATETZAREN DEKRETUA.- I.P.R SLU.- 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea onestea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.-
2024-402	ALKATETZAREN DEKRETUA.- MC.I.A. 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea onestea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.
2024-403	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Ned Suministro GLP SAU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2/2024.
2024-404	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Nortegas E.D. SAU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2/2024.
2024-405	ALKATETZAREN DEKRETUA.- J.J.L.- Nukleo zoologikoa ezartzeko obregatik jarduera etetea agintzea eta hiri-antolamendua eta ingurumen-antolamendua berrezartzeko espedientea hastea, Izorian txakurrak trebatzeko jarduera, lizentziarik gabe.
2024-406	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Erregistratutako kontularitza-fakturen F/2024/6 zerrenda onestea.
2024-407	ALKATETZAREN DEKRETUA.- R.B.G. 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea onestea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.
2024-408	ALKATETZAREN DEKRETUA.- J.M.U.M. - Peoiaren aldi bateko lan-kontratua.
2024-409	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Baser C.R. SA- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2/2024.
2024-410	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Goiener SC Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2/2024.
2024-411	ALKATETZAREN DEKRETUA.- TotalEnergies Clientes SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2/2024.
2024-412	Informazio publikorako sarbideari buruzko eta Lanteno herrian txakurrak entretenitzeko zentroa instalatzeko obra-lizentziaren espedientearen kontsultari buruzko dekretua.
2024-413	ALKATETZAREN DEKRETUA.- 2024an zaborrak biltzeko zerbitzua emateagatik tasa onestea.
2024-414	ALKATETZAREN DEKRETUA.- LOIRIri kultura- eta kirol-ikastaroen zerbitzuaren kontratu irekia adjudikatzea.
2024-415	ALKATETZAREN DEKRETUA.- J.M.P.Q. 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea onestea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.
2024-416	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Totalenergias Electricidad y Gas España SA. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2/2024.
2024-417	ALKATETZAREN DEKRETUA.- EDP Clientes SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2-2024.
2024-418	ALKATETZAREN DEKRETUA.- Alkatetzaren eskumenak eskuordetzea, ezkontza zibila egiteko.
2024-419	BALIOGABETZEA, AKATS INFORMATIKOAGATIK.
2024-420	ALKATETZAREN DEKRETUA.- R.B.O. 2024ko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea onestea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.
2024-421	ALKATETZAREN DEKRETUA.- ORANGE ESPAGNE SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2-2024.
2024-422	ALKATETZAREN DEKRETUA.- ARATEI – Kontratu txikia adjudikatzea, 5. poligonoko 620 partzelan (Olabezar) dagoen baserriko obretarako.
2024-423	ALKATETZAREN DEKRETUA.- VENTICLIMA – Ikastolako galdararen proiektua aldatzeko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzea.
2024-424	ALKATETZAREN DEKRETUA.- PHS Serkonten – Zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzea, Etxaurren Ikastolako instalazio termikoetan Legionelaren kontrola egiteko.



Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza, Alkatetzak egindako kreditu-aldaketa bati buruzko 2024/390 zenbakiko Alkatetzaren Dekretuari buruz galdetzeko. Adierazi du kreditu-gaikuntza dela eta gustatuko litzaiokeela jakitea zein diren Alkatetzaren Dekretu bidez gaitu diren kontzeptuak.

Idazkari kontu-hartzaileak aurrekontu-aldaketa honen bidez gaitu diren kontzeptuen berri eman du.

DIRU-SARREREN EGOERA

<u>Diru-sarrereren partida</u>	<u>Aurreko gordailua</u>	<u>Gehikuntza</u>	<u>Gordailua guztira</u>
72003	0,00 €	20.447,17€	20.447,17€

SARREREN IGOERAREN ZENBATEKOA GUZTIRA: 20.447,17 €.

GASTUEN EGOERA

<u>Gastuen partida</u>	<u>Aurreko kreditua</u>	<u>Gaikuntza bidezko gehikuntza</u>	<u>Kreditua guztira</u>
<u>323.622.022</u>	0€	<u>20.447,17</u> €	<u>20.447,17€</u>

GAITUTAKO KREDITUEN ZENBATEKOA GUZTIRA: 20.447,17 €

7.- Galde-eskeak.

Karmele Población alkateorde andreak (EH Bildu) hartu du hitza euskaraz adierazteko Etxaurren Ikastolaren alboko betetze-lanak ia amaituta daudela, eta gainean landare-geruza jartzea baino ez da geratzen.

Marian Mendiguren zinegotzi andreak (EH Bildu) hartu du hitza adierazteko bertso-eskolari buruzko lizitazioa hutsik geratu zela; hortaz, lizitazio berria egiten ari da. Euskaraz azaldu du hutsik geratu zela badirudiela zerbitzu hori enpresa bakar batek ematen duela, eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua oso txikia iruditzen zitzaien. Euskaraz azaltzen jarraitu du txostena egin dela kontu ekonomikoa aztertzeke, eta iritzi da behar bezala justifikatuta dagoela bigarren lizitazioan prezioa igotzea. Era berean, euskaraz jakinarazi du bigarren lizitazioan eskaintzak aurkezteko epea uztailearen 31n amaituko dela, eta saiatuko direla lehenengo kontratazio-mahaia abuztuaren 1ean izatea, abuztuaren 5erako adjudikatuta izan ahal izateko.



Bestalde, euskaraz adierazi du, ikastolaren matrikulazioari dagokionez, oraindik ez dituela datu guztiak, baina uste duela 231 izan direla (aurreko urtean baino 11 gutxiago) eta, haurreskolan, momentuz, 4 egon direla.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) euskaraz eskatu du dituztenean datu osoak bidaltzea.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza, obra txikien inguruan galdetzeko; izan ere, adierazi du lehenengo aldia dela bizpahiru legealdietan oposizioak ez dakiela obra txikien kontzeptuan eskatu dena, ezta dokumentu teknikoa, memoria eta zenbatekoa ere zein diren. Leporatu die informazio batzordeak egin direla eskaerak aurkezteko epea amaitu ostean eta, nahiz eta hirigintza eta obrak eta zerbitzuak batzordea egin ez bada ere, beste batzorde bat egin dela aprobeztatu ahal izan zen oposizioari informazio hori emateko, proposatutako esku-hartzea zertan datzan jakinarazteko behintzat.

Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) adierazi du ez dela hirigintza eta obrak eta zerbitzuak batzordea egin bera kanpoan egon delako; egia da informazioa eman ahal zitzaiela, edo beraiek eskatu ahal zutela. Jakinarazi du puntu horren inguruko eskaera aurkeztu zela astelehenean eta, gaiarekin jarraitu da; dagoeneko aipatu zen anfiteatro bat egitearena.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ulertzen duela Hirigintza eta Obrak eta Zerbitzuko zinegotzia oporretan egon dela, baina hori ez litzateke oztopoa izan beharko oposizioa obra txikiekin jakinaren gainean egoteko.

Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) adierazi du obra txikien memoria arkitektoak amaitu duela astelehen horretan bertan; hortaz, horri buruzko informazio gutxi eman ahal zen, eta astelehenean azken orduan bidali da memoria.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ez dakiela zein denbora-tarte egon den, baina noiz amaitu den alde batera utzita, ondo legokeela oposizioari jakinaraztea, are gehiago oposizioak dagoeneko behin baino gehiagotan galdetu badu batzordeetan. Azpimarratu du bi aldiz galdetu dutela horren inguruan, ekarpena egin baitzuten ikastolako irisgarritasuna hobetzeko, eta esan zieten gobernu-taldeak dagoeneko osoko bilkuren aretoaren akustika egokitu eta anfiteatroa egiteko ideia bazutela.

Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) erantzun dio hurrengo egunean, arkitektoarekin bildu ondoren, bidaliko diola.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) esku hartu du adierazteko ingurumen batzorde batean esan zutela lanean zeudela autoa partekatzeko plataformaren lizitazioa egiteko, eta batzorde horretan bertan Aiarako Kuadrillako ingurumen teknikaria eta alkateordea gai horri buruz enpresa batekin bilduta egon zirela aipatu zen. Adierazi du harrিতa dagoela lizitazio horretara enpresa bakar bat aurkeztu delako, eta bere garaian Aiarako Kuadrillako ingurumen teknikaria eta alkateordea bildu ziren enpresa bera zelako.

Karmele Población alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du bere burua aurkeztu duela zerbitzu hori ematen duen enpresa gutxietako bat dela, baina beste edozeinek aurkeztu ahal zuela bere burua, eta galdetu du ea oposizioa zerbait iradokitzen ari den.



Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi bere garaian galdetu zutela Eusko Jaurlaritzak atera zuen irisgarritasunerako laguntzari buruz, eta, irteera-erregistroa ikusten ez zutenez, hirigintza batzordeko presidenteak erantzun zuela EAJ-PNVk proposatutakoa eskatu zutela, obra txikietarako, ikastolaren irisgarritasunaren konturako, hain zuzen. Galdatu du ea ebazpen horri buruzko informaziorik dagoen, eta Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) erantzun du ezetsi dutela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea zer dela-eta ezetsi den, eta Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) erantzun dio ez duela ezestearen arrazoia gogoratzen, baina ebazpena bidaliko dietela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) eskatu du ahal duenean ebazpena bidaltzea, eta Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) erantzun du hurrengo egunean bidaliko dietela, obra txikien dokumentazioarekin bat.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz eskatu du sastrakak kentzeko zerbitzuaren kronograma, lau bilkura jarraietan eskatu baitute.

Prudencio Otegui alkate-udalburu jaunak (EH Bildu) galdetu du ea sastrakak altueran kentzeko kronograma den, eta Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio administrazio batzarretako bideetan sastrakak kentzeko kronogramari buruz ari dela. Ildo horretatik, adierazi du, bi gauza eskatu ziren. Lehenengoa, sastrakak altueran kentzeko kronograma, beste egunean bidali zieten, eta eskatu zuten administrazio batzarrak bakarrik jakinarazi zizkieten; bederatzi ziren, eta momentuz bakarra egin dela dakitela. Galdetu du ea gai horretan aurreratu duten.

Prudencio Otegui alkate jaunak (EH Bildu) adierazi du Corbusetik duten taldea aurreko astean hasi direla egiten. Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du zenbat gehiago egin diren, eta Prudencio Otegui alkate-udalburu jaunak (EH Bildu) erantzun dio informazio hori eskatuko dietela, ez baitu informazio zehatzik.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) jarraitu du, adieraziz behin eta berriz hainbat bilkuratan eskatu zuten bigarren gauza batzarretako bideen sastrakak kentzeko zerbitzuaren kronograma zela.

Prudencio Otegui alkate-udalburu jaunak (EH Bildu) erantzun du ez dela aldatu beste urte batzuekin alderatuta, beste urteetako berdina izaten jarraitzen duela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du eskatu dutela zein diren aldiak, sastrakak kentzeko zerbitzua hasten denetik amaitu arte, batzar bakoitza noiz egiten den jakiteko. Adierazi du berak dakien arabera enpresak, zerbitzuarekin hasi aurretik Udalari gutxi gora behera bidaltzen zizkiola batzar bakoitzetik noiz igaroko zen, edo lehen hala egiten zuen, behintzat, gero errejidoreei esaten zitzaiena gorabehera. Izan ere, EAJ-PNVk ez daki sastrakak kentzen amaitu duten edo oraindik jarraitzen duten.

Prudencio Otegui alkate-udalburu jaunak (EH Bildu) eta Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) erantzun diote galdetuko dutela.



Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza, behin berriz adierazteko badirudiela oposizioak eskatzen ez badu gauzak ez direla egiten. Izan ere, nabaritu dute Udalak proiektu handia egin duela, eta bere garaian horretarako prestakuntza egin zutela alkate-udalburuak, lehen alkateordeak eta Udalbatzako idazkariak, hain zuzen, gardentasunaren atariari buruzkoa. Ikus daitekeenez, gardentasunaren atariak oposizioak informazioa igotzea eskatzen duen bakoitzean funtzionatzen du. Ildo horretatik, ikusi dute Udalaren lehenengo hiruhilekoko fakturak ez daudela igota gardentasunaren atarira; hortaz, EAJ-PNVk batzuetan arazoak ditu udal-informazioa eskuratzeko, baita Aiarako edozein herritar ere, eta galdetu du alde politikotik nor den gardentasunaren atariaren jarraipena egiteko arduraduna.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du momentuz taldeko inor ez dela horretaz arduratzen. Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ez dakiela erantzun horrek are gehiago harritzen duen.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) erantzun dio idazkari berria dagoela eta oraindik ez direla gai horretara heldu, lehentasun handiagoko beste kontu batzuk baitaude.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Udaleko idazkariak ez duela zerikusirik fakturen zerrenda igotzeko; izan ere, kontularitzaz arduratzen den pertsonak fakturen dokumentua sortzen du, eta dokumentua web-orrira igo behar da, besterik ez. Hortaz, ulertzen du idazkaria ez izateak arazoak ekartzen dizkiola Udalari, baina uste du zenbait funtzio eta eginkizun gobernu-taldearen ardura direla, edo, behintzat, nola egin kudeatzea. Orain idazkaria ez izateak edozertarako balio du...

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) erantzun du EAJ-PNVk ere prestakuntza izan zuela gardentasunaren atariaren inguruan, eta EH Bilduk ez du prestakuntza hori izan, ezta Expertaren inguruko prestakuntza ere, eta oraindik zenbait alderdiren inguruko prestakuntza eta behar den informazioa ez izaten jarraitzen dute.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) prestakuntzaren inguruan erantzun du plataforma martxan jartzeko bakarrik zela, eta plataformak gardentasunaren legeak ezarritako baldintzak betetzeko lege-alderdiak ezagutzeko, ez zen dokumentuak webgunera igotzeko izan.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) erantzun du EAJ-PNVk adierazi duela horri buruzko prestakuntza jaso zutela, eta horregatik ematen diotela garrantzia web-orrira informazioa igotzearekin; hortaz, EH Bilduk horren inguruko prestakuntza duenean, horrekin lanean hasiko dira.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du aurreko soko bilkuran administrazio batzarretako FOFELi buruz galdetu zutela, jakiteko batzarrek kontuen gaia aurkeztu zuten eta Udalaren FOFELaren zatia ordaindu zitzaie, araudiak ezartzen duenari jarraikiz, eta ez dakite horri buruzko ezer. Adierazi du Ogasuna Batzordea egin dela, eta Ogasuna eta administrazio batzarrei buruzkoa dena, eta batzordean ez zen horri buruzko informaziorik eman.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Prudencio Otegui alkate-udalburu jaunak (EH Bildu) erantzun du oraindik ezin izan dituztela datu guztiak bidali, batzuk falta dira, baina ez daki nola dagoen gaia. Adierazi du guztia nola dagoen dakienean informazio hori bidaliko diola.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ordenantza bat dagoela, eta esaten duena esaten duela, eta Udalak udal-ordenantzak betetzera behartzen duen heinean, Udalak ere bete behar ditu.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du nola dagoen poligonoko baskularen kontua.

Iratxe Parro zinegotzi andreak (Aiara Batuz) adierazi du ordenantza hori batzuetan ez dela bete, egia da badutela, baina normalean batzarren bat geratzen da, eta gogorarazi behar zaie.

Iñigo Pinedo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) gogorarazi du hori dela eta, hain zuzen jakin nahi dutela datua.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du berak dakienaren arabera, eta berak egiten zuen, kontuak aurkezteko geratzen ziren administrazio batzarrak deitzen zituztela, Udalari eta Aldundiari aurkeztu behar zizkietela gogoraraziz, arauak hala ezartzen baitu, askotan uste baitzuten nahikoa zela Udalean erregistratzearekin.

Karmele Población alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du informazioa dutenean bidaliko dietela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du aurreko legealdiaren amaieran, eta Aiaraldea Berraktibatzeke Planaren funtsen kargura, aurreikusita zegoela industrialdean baskula jartzea. Azaldu du industrialdea osorik berritzeko proiektua idatzi zenean gutxi gora behera zirriborro batean utzi zela kokapena, eta une horretan bertan uste zen (eta Aiara Batuzek bazekien) baskula ikastola dagoen tokitik kendu behar zela, orain, udan, gehien erabiltzen denean, lastoa eta belarra daramaten kamioiak pisatuko direlako, eta horrek ikastolarekin dagoen elkarbizitza oztopatzen du. Adierazi du EAJ-PNVk uste zuela garrantzitsua zela, eta hala baskula poligonoan jartzeko gaia bideratuta utzi zutela, eta gaia nola doan jakin nahi du.

Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) erantzun du jakinarazteko proiektua bidali diotela Garapenerako Arabako Agentziari, baina eskatu dute banakapena egin dadin proiektuaren lehenengo fasearen, obra zibilaren, bigarren fasearen eta baskularen instalazioaren artean; hortaz, udal-arkitektoak horri buruzko txostena egitearen zain daude.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea eperik zehaztu den.

Iratxe Parro zinegotzi andreak (Aiara Batuz) erantzun dio ez dela eperik zehaztu, baina lehenbailehen bidali beharko lukeela, Udalak horretarako konpromisoa hartu baitu.

Gentza Alamillo zinegotzi andreak (EAJ-PNV) adierazi du aurreko osoko bilkuran txirringularen elkartearen eskaeraren gaia aipatu zela, eta alkate-udalburuak erantzun zuela txirringularen elkartearen eskaerari erantzutea agindu zuela. Galdetu du ea erantzun dieten.



Prudencio Otegui alkate-udalburu jaunak (EH Bildu) erantzun du akatsa egon dela, ez daki noren aldetik, erantzuna bidali behar zuen pertsonak uste baitzuen alkate-udalburuak zerbait gehiago esan behar zuela, eta oraindik ez dela erantzun. Orduan, azaldu du, txirrindularien elkarteko presidentearekin hitz egin zuen, eta azaldu zien akatsa egon dela eta, ondo egin ahal izateko, berriz eskaera bidali behar zutela, eta idatziz erantzungo zietela. Edonola ere, adierazi du esan ziotela nahi zutenean egin zezaketela, eta erantzun zutela irailetik aurrera behar zutela, eta txirrindularitza eskolarekin hitz egingo zutela Udalarekin koordinatzeko.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ondo iruditzen zaiela, baina adierazi du gero alkate-udalburua Radio Llodion ateratzen denean beti azpimarratzen duela herritarrek eskaerak idatziz egin behar dituztela. Alkate-udalburuak erantzun du eskaera idatziz egin zela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du nola dagoen Luiaondoko kale-izendegia.

Prudencio Otegui alkate-udalburu jaunak (EH Bildu) erantzun du aurreko egunean bilera egon zela Luiaondoko Administrazio Batzarraren eta Aialurren artean. Bertan egon ziren, guztia ikusi zuten eta Barrenako eremu bat zehazteke zegoen: kalea. Errepidea la madalena da, baina ez da Barrena; hortaz, oharrak egin zituzten, baina adierazi du gaia bideratuta dagoela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du kontratuz kanpo daudela Udalaren aholkularitza juridikoaren zerbitzuarekin; kontratu hori Udalari eta administrazio batzarrei laguntza juridikoa ematen diena da. Ildo horretan, galdetu du ea kontratu hori baldintza ekonomiko berdinetan ematen jarraituko den, baita zerbitzuaren aldetik ere, berriz lizitatu arte, edo ematen ari duen enpresak adierazi duen kontratuz kanpo dagoenez beste arau batzuk aplikatu behar direla.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du baldintzak aldatu direla, eta lizitazio berrian ere aldatu direla; zenbait konturen arabera zenbateko finkoa jarriko da, eta gero aldakorra. Adierazi du Administrazio Orokorreko teknikaria agiriak aldatzen ari dela, baldintzak pixka bat aldatuko dituztelako.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza Expertaren gaiaren inguruan galdetzeko, jakiteko eta kontsulta egin dioten Tokiko Administrazio zerbitzuari, lehen dokumentuen kudeatzailearekin zegoen aukerari buruz galdetzeko, kontsulta moduan sartu ahal izateko, gainerako zinegotziek informazioa eskura dezaten.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du Expertako langile batzuk hurrengo egunean udaletxera etorriko direla, eta haiekin hitz egingo dutela, langile politikoek oraindik ez baitute prestakuntza jaso. Era berean, adierazi du langileak pixka bat etsita daudela, lehen zuten zerbitzuan guztia berehala konpontzen zelako, eta orain, arazoa dutenean, arazo hori zein den arabera, apuntatzen dute, eta momentuz ez dute konpontzen. Azpimarratu du haiek ez dutela prestakuntza jaso eta berriz haiekin hitz egiten saiatuko direla, ea zer dioten.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du haiek espedienteen lehenengo kudeatzailearen ezarpena bizi izan zutela. Adierazi du aldaketa handia izan zela guztia paperez



egitetik guztia Firmadocen bidez egitera igarotzea, eta instalatzea erokeria zela, baina denborarekin ikusi dute lana errazten duela, bai langileei, baita alkateari ere.

Karmele Población lehenengo alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du langileei asko kostatzen ari zaiela, oso estresatuta daudela, eta ez dakitela zenbat baja dituztela, eta batzuk estresa dela-eta dira. Adierazi du Expertarekin hitz egingo dutela, ea zer egin daitekeen, behintzat zinegotzien prestakuntza egin dadin.

Iñigo Pinedo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza errepikatzeako kontsultarako erabiltzaile bat konfiguratu dadila, ezin baitzaie baimen guztiak eman erabiltzaile guztiei, funtzionalitate guztiak egin ahal izateko, eta kontsultarako erabiltzailea egon behar dela. Beste gauza bat da martxan jarri ez izana.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) ikastolako berokuntzarako eskatu ziren dirulaguntzen inguruan galdetu du, esan zitelako batzuk eskatu zituztela, baina sarrera-erregistroan IDAEren ebazpena ikusi dute.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) erantzun du eman den azkena Udalaguntza dela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du bera ez dela horiez ari. EEEren laguntzen kasua aipatzen du, eta adierazi du harrিতa daudela kasu honetan Udalak aurkeztutako laguntzarako eskaera ezetsi delako, eta ezetsi izanaren arrazoia aurkeztu gabe zegoen dokumentazioa ez zuzentzea eta urtarrilaren 12ko errekerimenduaren bidez eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea izan dela. Adierazi du uste dutela ez dela laguntza eman ez dietela, baizik eta zuzentzeko errekerimendua egin dela eta Udalak ez duela zuzenketa aurkeztu.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) azaldu du horiek Next Generation funtsekoak direla, eta oso konplikatuak direla, dokumentazio asko aurkeztu behar zelako. Azaldu du eskaera egin zutela, ea sartzan zen, baina gero idazkariarekin, arkitektoarekin eta Ingurumen teknikariarekin kontsultatu zutela eta ikusi zutela oso zaila zela dokumentazio guztia epean aurkeztea; hori egiteko pertsona bat kontratatu beharko luketelako, eta iritzi zuten ez zuela merezi.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du, berak dakien arabera, hitzarmena sinatu zela Next Generation funtsak kudeatzen laguntzeko.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) azpimarratu du teknikoekin aztertu zutela eta iritzi zutela ez zuela merezi, ezinezkoa baitzen guztia garaiz prestatzea.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko ez dakiela aipatu ez den edo ez duten aipatu izan nahi, baina nahi duela jasota gera dadila Zuhatzako Administrazio Batzarrak aurkeztu zuen errekurtsuaren epai judiziala heldu dela, kontzertazio-batzarraren estatutuak onesteari buruzkoa. Izan ere, zalantzan jarri zen Udalak estatutu horiek onesteari buruz hartutako erabakia. Adierazi du nahi duela jasota gera dadila errekurtsua ezetsi dela, batzarrak jarri zuen errekurtsua ezetsi dela, eta Udalari arrazoia eman dietela; izan ere, bere garaian zalantzan jarri zen legearen ikuspuntutik hori hala egin ahal izatea, batez ere EH Bilduren aldetik, zalantza asko zeudelako, eta uste zutelako EAJ-PNVk egin ezin zen zerbaite egingo zuela.



Adierazi du ez zirela hain zoritzarrekoak, batez ere idazkariaren eta Udalaren aholkularitza juridikoko zerbitzuen jarraibide juridikoei jarraitu zietelako.

Marian Mendiguren Zinegotzi andreak (EH Bildu) adierazi du EH Bilduk gogoratzen duela ez zutela esan jarduketa txarto zegoenik, baizik eta aukera bat bilatu nahi zutela, eta horren inguruan galdetu zutela. Uste du ez zutela zalantzan jarri EAJ-PNVren jarduteko modua.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du une horretan argi geratu zela Udalak ezin zuela ezeztu estatutuak onestea, legearen ikuspuntutik ezarrita zeuden baldintza guztiak betetzen bazituzten. Hori izan zuen idazkariak, eta, uste du, EH Bilduk eta Aiara Batuzek txostena eskatu zietela Udalaren idazkariari.

Marian Mendiguren zinegotzi andreak (EH Bildu) errepikatu du bere ustez EH Bilduk ez zuela aipatu legezkotasunik eza zegoela, baizik eta aukeren inguruan galdetu zutela, besterik ez.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) ñabartu du jarduketaren legezkotasuna zalantzan jarri zutela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du mahai gainean jarri nahi duela, eta beste osoko bilkuraren batean aipatu zutela, Barrena kaleko esku-hartzearen inguruan, Hirigintza Batzordeko presidentearen erantzunetan beti aipatzen zela enpresa, enpresaren abala zegoela, eta gero esaten zuten egikaritu ziren produktuak ez zirela bateragarriak.

Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) azaldu du produktua aplikatzeko modua ez zen egokia izan.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du kontua dela obra egin duen enpresaren sarrera-erregistroa dagoela, eta horren arabera, beraiek ezarrita zegoena egikaritu dute, eta abala itzultzea eskatu zuten, ezin zaielako haiei leporatu inprimatuaren berniza altxatu dela.

Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) azaldu du idazki hori beste proba bat egin ostean egin da; proba horretan duela 4 urte eman zen produktuarekin egindako probetan baino emaitza okerragoa izan da. Adierazi du arkitektoarekin eta obraren zuzendariarekin hitz egin dutela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) azaldu du Udalak, obra bat egiteko, lizitazioa ateratzen duela, kontratista dagoela, Obra Zuzendaritza dagoela, eta obrako zuzendaria obra ondo garatzen dela egiaztatu behar duela. Adierazi du harrigarria iruditzen zaiola esku-hartze horietan Hirigintza Batzordeko presidentek enpresaren abala aipatzea, baina ez zen inoiz zalantzan jarri proiektuaren idazleak erabaki ona edo txarra hartu zuen.

Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) azaldu du probak egin dituztela beste produktu batzuekin, eta orain, harrigarria bada ere, produktuak balore txarragoak ematen ditu, obra egin zenean eman zen produktuaren baloreekin alderatuta. Estibaliz Aldama (obrako zuzendaria) aztertzen ari da, erantzuna eman ahal izateko.



Iñigo Pinedo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) Patxita etxearen kontua nola dagoen galdetu du, Hirigintza Batzordea egon ez denez, ez dakielako zein egoeratan dagoen.

Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) azaldu du arkitektoaren eskuetan dagoela, eta berriz martxan jartzeko txostena izatearen zain daudela.

Iñigo Pinedo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea enpresari egoera jakinarazi dioten, zain egongo direlako.

Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) adierazi du harremanetan dagoela obrako zuzendariarekin; txostena duela aste batzuk heldu zen, eta arkitektoaren txostenaren zain dago.

Iñigo Pinedo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari buruz galdetu du ea zerbait dakiten edo berririk dagoen, ea URArekin hitz egin duten txostenak nola doazen jakiteko.

Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) adierazi du txostenak bidali zaizkiola URARI.

Iñigo Pinedo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) errepikatu du ea berririk dagoen, ea URArekin hitz egin duten aztertzen ari diren jakiteko, ea interesik egon den zein egoeran dauden jakiteko.

Izaskun García zinegotzi andreak (Aiara Batuz) adierazi du URA erantzutearen zain daudela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du arlo administratiboa eta politikoa bereizi behar direla. Galdera da ea gobernu-taldeko norbait harremanetan jarri den URAko arduradunarekin, jakiteko erantzuteko zein epe aurreikusten diren.

Iñigo Pinedo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du begirunez egin beharko luketela, Plan Orokorreko idazleekin ere hitz egiteko, egoera pixka bat azaltzeko.

Iñigo Pinedo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea nola dagoen Luiaondoko kalistenia parkearen kontua.

Prudencio Otegui alkate-udalburu jaunak (EH Bildu) erantzun du URAREN txostenaren zain daudela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) Udalaren aurrekontuari buruz galdetu du, uztaila delako, eta aldatutako zirriborroa bidali zen; mezu elektronikoa bidali zioten lehen alkateordeari, partidaren batei lotutako kontuengatik.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) erantzun du kontu horiek Arantzadiren eta galdararen kontuak zirela; momentuz ez dakite zehazki zein zenbateko beharko den, eta gutxi gora beherako kopurua jarri da. Aipatu du galdara bakarrik aldatzeko zenbatekoa zein den dakitenean balioespen xeheagoa egin ahalko dutela.



Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du bere galdera ez dagoela gastuaren partidari zuzenduta, sarreraren partidari baizik, hori baita Udalaguntzaren ebazpena.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du ez dela agertzen, guztia instalatzeko zenbateko osoa delako, baina aztertzen ari diren ideia galdara bakarrik denez, eta proiektua idatzi gabe dagoenez eta ez dakite zein zenbateko gastatuko duten, aurrekontuaren arabera jarriko duten dirua ez da benetan jasoko dutena, galdera bakarrik jartzea merkeagoa delako.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du irailean onetsiko den aurrekontua dutela.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du abuztuan ezohiko osoko bilkuraren deialdia egitea aztertzen ari direla.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du “ikaragarria izango litzatekeela”.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du kontsultatu duela eta legezkoa dela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du legezko ikuspuntutik ez dagoela arazorik.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du harritzeko modukoa dela, osoko bilkura guztietan harritzen den moduan...

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du harritzen duena dela zazpi hilabete izan dituztela, eta 2024ko aurrekontua onesten ari dela, abuztuan ezohiko osoko bilkura egitea baliogabea da.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du esan diotela ez dela baliogabea eta, osoko bilkurak egin daitezkeela abuztuan.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du osoko bilkuraren deialdia egiten dela eta ahal badute joango direla, baina ezin dela beste moduz egin. Adierazi du harrituta dagoela abuztuan 2024ko aurrekontua onestearekin, behin behineko onespena argitaratu behar delako aldzkarian, eta behin betikoa irailean, eta aurrekontua egikaritzeko urria, azaroa eta abendua izango dituzte.

Iñigo Pinedo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du hori erreklamaziorik ez badago bakarrik beteko dela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ehun mila euro baino gehiago daudela egikaritzeko 2024. urterako, eta ez dagoela proiektua ere.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du egiten ari direla eta argi dutela. Era berean, adierazi du zalantza duela eta begiratu behar duela, baina gogoratzen du EAJ-PNVren legealdietako baten aurrekontua ere berandu onetsi zela.



Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) erantzun du beranduen onetsi zela ekainean onetsi zela, pandemiaren urtean. Adierazi du aurrekontua prest zutela, baina idazkari berriak esan zuela ez zuela zuzenean onetsiko egiten parte hartu ez zuen aurrekontu bat. Eta hori gutxiengo gobernuan izan zen. Adierazi du aurten Udalean gobernu-taldeak gehiengo osoa duela, eta partidak urrian hasiko direla egikaritzen.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du horiek haien arazoak direla, eta aurre egingo dietela.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) gogorarazi dio arazo hori ez dela Udalarena bakarrik, udalerrarena baizik.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du proiektu asko egiten ari direla aurrekontuak onetsi gabe.

Iñigo Pinedo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du hala bada, aurrekontua ez onestea.

Karmele Población lehen alkateorde andreak (EH Bildu) adierazi du abuztuan onetsiko dutela.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretzia eta berrogeita hamabost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezzen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita lauko uztailaren hamazortzian.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA,

Stua.: Prudencio Otegui Echevarría.

IDAZKARIA,

Stua.: Vanessa Domínguez Casal.